

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

UDALEKO ZERBITZUEN EDO JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

Hasierako onarpena: 2024ko urriaren 30eko ohiko osoko bilkura.

BAO argitalpena: [212 zk. 2024ko azaroaren 4koa](#)

Jendaurreko erakustaldia: 2024ko abenduaren 17ra arte

Alegazioak: 2 ezetsiak / 2 bertan behera utzita.

Behin-betiko onarpena: 2024ko abenduaren 26ko ezohiko osoko bilkura

BAO argitalpena: [249 zk. 2024ko abenduaren 30ean](#).

Indarrean: 2025eko urtarrilaren 1ean



UDALEKO ZERBITZUEN EDO JARDUEREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 44.artikulutik 50.era ezarritakoarekin bat etorriz, Durangoko Udalari erregelamenduak egiteko aitortu zaion ahala baliatuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua eta harekin bat datozenen arabera, Ordenantza honek hizpide dituen udal lehiako jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezarri eta eskatzen dira, Ordenantza horretan bertan jasotako arauen arabera.

2. Artikulua

Ordenantza udal mugarte osoan aplikatzen da.

3. Artikulua

Oro har, eskumen lokaleko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoen bidez ordainarazi egin ahal izango da, betiere, zerbitzu edo jarduerak horiek zergadunarekin bereziki lotuta badaude, hari eragin eta laguntzen badiote, zergadunek beren borondatez eskatu edo jasotzen badituzte eta zerbitzu edo jarduerak sektore pribatutik eskaintzen eta egiten badira.

II. ZERGA EGITATEA

4. Artikulua

Udal administrazioak, eskatu zaiolako zein partikularrek egindakoez ekintzek zein egin gabekoez zeharka eragin dutelako, zerbitzua eman edo jarduketak egitea gauzatzea zergapetuta geratzen da.

III. ORDAINTZERA BEHARTUTAKOAK ETA SORTZEA.

5. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira prezio horiek ordaintzera behartzen duten zerbitzu edo jardueren onura jasotzen dituztenak.

6. Artikulua

Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten den unean sortzen da Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra.

IV. ZENBATEKOA ETA PREZIOEN KUDEAKETA

7. Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen ondoriozko tarifak eranskinean jasota daude.

8. Artikulua

Ordenantzak araututako tarifen arabera prezio publikoen kontura eskatu ahal izango diren kopuruak, eskatutako edo emandako zerbitzu edo jarduerak bakoitzeko ordaindu beharko dira, tarifa bakoitzerako adierazitako kopuruak murrizte-zinak direlarik.

9. Artikulua

Ordenantza honetan aipatzen diren udal jarduerak egiteko edo zerbitzuak emateko, aldez aurretik eskatu beharko zaio Udal Administrazioari zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea. Nolanahi ere, zerbitzu edo jarduerak horiek ematea Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzearen mende geldituko da, eta bere prestakuntza luzatzen bada eta prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua ez ematea edo jarduerak ez egitea automatikoki ekarriko du.

10. Artikulua

Prezio publikoa honela ordainduko da:

a) Zerbitzuak eman edo jarduketak egin behar direnean, eskudiruz ordainduko da udalak zehaztutako bideetatik, zerbitzu eman edo jarduketa egin aurretik, eta jarritako zenbatekoan.



b) Aurretiaz ordaintzerik ez dagoen zerbitzuak eman edo jarduketak prestatzen direnean, behartutakoak ordainduko du dagokion faktura aurkezten zaionean.

c) Urtez urteko zerbitzuak edo jarduerak direnean, urte natural bakoitzean ordaindu beharko dira, prezio publikoen matrikuletan sartutakoan.

11. Artikulua

Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotzi ezinezko arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera eman edo prestatzen ez bada, zenbatekoa itzuli egingo zaio.

12. Artikulua

Durango Udaleko Administrazio Organismo Autonomoek eta Sozietate Publikoek eskainitako zerbitzuen prezio publikoak direnean, erakunde horietako Zuzendaritza-batzordeek edo Administrazio-kontseiluek onartuko dituzte, eta Udalbatzako Osoko Bilkurari eman beharko diote onartutakoaren edo aldatutakoaren berri.


13. Artikulua

Prezio publiko horien ondoriozko zorrak premiamenduko administrazio prozeduraren bitartez eskatu ahalko dira.

V.- ZERBITZU ETA JARDUEREN TARIFEN ERANSKINA.

A) Udal Turismo Bulegoak emandako zerbitzu eta jarduerak:

PRODUKTUAK	KOSTUA	PREZIO PUBLIKOA	KOSTUAREN ES- TALDURA PREZIO PUBLIKOEKIN
			%
Kamisetak	13,60 €	14,00 €	% 103
Poloak	17,80 €	18,00 €	% 101
Poltsak	9,30 €	10,00 €	% 108
Imanak	1,90 €	2,00 €	% 105
Kikarak -	7,20 €	8,00 €	% 111
Mikeldi irudia	9,40 €	10,00 €	% 106
Kurutziaga Gurutzea irudia	11,30 €	12,00 €	% 106
Udaletxea irudia	11,30 €	12,00 €	% 106
Andra Maria Basilika irudia -	13,40 €	14,00 €	% 104
Sta. Anako Arkua irudia	13,40 €	14,00 €	% 104
Umeentzako DVDa		3,00 €	
DVD Dokumentala	4,11 €	5,00 €	% 122



PRODUKTUAK	KOSTUA	PREZIO PUBLIKOA	KOSTUAREN ES- TALDURA PREZIO PUBLIKOEKIN
			%
Poster handia	0,82 €	1,20 €	% 146
Poster Txikia	0,50 €	0,80 €	% 160
Poster hand. bilduma	6,40 €	9,00 €	% 141
Poster Txik. bilduma	4,00 €	4,00 €	% 100
Postala	0,20 €	0,30 €	% 150
Postal bilduma	1,60 €	2,00 €	% 125
Kurutziagako Gurutzearen li- burua		10,00 €	
Durangoko argazkien liburua		18,00 €	
Kamara	6,31 €	6,00 €	% 95
Audiogidak	1,00 €	1,00 €	% 100
Taldeentzako audiogidak		20, 00 €	
Saltoka Jokoa		3,00 €	
Santa Anako kanpandorra bizitzeko sarrerak		3,00 €	

B) Udal Gizarte Ekintza Sailak emandako zerbitzu eta jarduerak *:

SAILA / AR- LOA	PRODUKTUA IKASTAROA TAILERRA	/ / KOS- TUA	PREZIO PUBLI- KOA	BALDINTZAK	KOSTUAREN ES- TALDURA PREZIO PUBLIKOEKIN
GIZARTE EKINTZA ADINEKOAK	Jantoki zerbitzua 70 urtetik gorako- entzat, edo 65 ur- tetik gorakoak, zaurgarritasun egoeran badaude.	12,38	4,00	- 900 eurotik beherako pen- tsioa. Pertsona baka- rreko familia-uni- tatea. - 1.500 euro- tik beherako pentsioa. Pertsona 2ko fa- milia-unitatea.	% 32,31



SAILA / AR- LOA	PRODUKTUA IKASTAROA TAILERRA	KOS- TUA	PREZIO PUBLI- KOA	BALDINTZAK	KOSTUAREN ES- TALDURA PREZIO PUBLIKOEKIN
			6,50	- 900 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. ----- - 1.500 eurotik gorako pentsioa. Pertsona 2ko familia-unitatea.	% 52,50
GIZARTE EKINTZA ADINEKOAK	Etxez etxeko janari zerbitzua 80 urtetik gorakoentzat, edo 65 urtetik gorakoak, mendekotasun-egoeran badaude.	9,82	5,20	- 900 eurotik beherako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. ----- - 1.500 eurotik beherako pentsioa. Pertsona 2ko familia-unitatea.	%52,95
			7,20	- 900 eurotik gorako pentsioa. Pertsona bakarreko familia-unitatea. ----- - 1.500 eurotik gorako pentsioa. Pertsona 2ko familia-unitatea.	%73,32

GIZARTE EKINTZA ADINEKOAK	Zahartze aktiboko ikastaroen matrikula, 2020-2021 ikasturtea*	100,00	Ikasturteko ikastaroa 14,00	60 urte edo goragokoak Exenciones por pensión**	
			Ikastaro motzak 7,00		

** Familia-unitatea pertsona bakarrekoa bada eta bere hileko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) baino baxuagoak badira, ez du prezio publikoa ordaindu beharko.

Ordaintzeaz salbuetsita egongo dira baita 2 kide edo gehiagoko familia-unitateak, baldin eta, guztien hileko diru-sarrerak batuta, diru-sarrera horiek ez badira heltzen LGS bider 1,3ra.



KONTZEPTUA	KOSTUA	PREZIO PUBLIKOA	KOSTUAREN ESTAL-DURA PREZIO PUBLIKOE-KIN
JAIETAKO ADINEKOEN BAZKARIA	20,90 €	6,00 €	% 28,70

C) Aukera Berdintasunerako Sailak emandako zerbitzu eta jarduerak*:

Jabekuntzarako ikastaroetarako matrikula. 2020/2021 ikasturtea	IKASTAROA-REN KOSTUA PERTSONAKO	PREZIO PUBLIKOA	ESTAL-DURA TASA %	DURANGOTIK KANPOKOEN-TZAKO PRE-ZIOA
-20 ordu arteko ikastaroak.	54€	10,00 €	% 18,52	% 50EKO ERREKARGUA.
-21-40 ordu arteko ikastaroak.	140€	16,00 €	% 11,43	% 50EKO ERREKARGUA.
-41-60 urte arteko ikastaroak.	267€	30,00 €	% 11,24	% 50EKO ERREKARGUA.

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten ikasleek edo langabezia daudenean 5 euro ordainduko dituzte ikastaroetan parte hartzeko, ikastaroen iraupena edozein dela ere.
- Prezio publikoa ordaintzeko salbuetsita egongo dira genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak. Egoera hori egiaztatzeko bide hauek ezartzen ditu legeak (Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezarri zen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduaren 3.artikulua):
 - a) Biktima babesteko agindua indarrean egotea eskabidea egiten den egunean.
 - a) Genero-indarkeriatzat hartzen diren ekintzengatiko zigortzeko epaia, non biktimaren aldeko babes-neurriak hartzea erabaki baita. Babes-neurriok indarrean egon beharko dute laguntza-eskaria egiten den egunean.
 - b) Babes-agindurik edo zigortzeko epairik ez badago, Fiskaltzaren txostenak balioko du egoera hori egiaztatzeko, babes-agindua ematen den arte; txosten horretan adieraziko da salatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela.

D) Kultura, Euskara eta Hezkuntza Sailak emandako zerbitzu eta jarduerak:

JARDUERA	KOSTUA	KONTZEP-TUA	PREZIO PU-BLIKOA	ESTALDURA TASA
Gabonetako umeen parkea	25.907	Helduen sarrera	1,00	% 13
		Adin txiki-koen sarrera	0,00	
Sukalki lehia-keta	3.702	Izen-ematea	5,00	% 16
Pirritx eta Porrotxen ikuski-zuna	19.604	Sarrera	5,00	% 50



Durango Kantari abesti liburuxkaren salmenta	5,13 (ale bat)	Liburuxka	2,00	38,98
--	----------------	-----------	------	-------

Gainerako jardueretarako, ekitaldi bakoitzak kostu ezberdinak dituelako ezin da ekintza bakoitzaren prezioa zehaztu, hori dela eta, hurrengo taulan prezio orokorrak zehazten dira.

Adin tartea	Ekitaldi mota	Irizpideak	Prezio publikoa
Umeentzako ekitaldiak	Antzerki saioak Musika kontzertuak	Kostua eta oihartzun sozial handia	5,00€
Helduentzako ekitaldiak	Antzerki saioak Musika kontzertuak	Kostuak eta oihartzun sozial handia	10,00€

Programa eta ekitaldi bakoitza kontuan hartuta, baloratuko da prezio publikoak ezartzea edo ekitaldia dohainik izatea.

Ikastaroa	Kostea (€)	Gutxieneko ikasleak (€)	Unitateko kostua (€)	Prezio Publikoa (€)	Hileko (€)	Kostuaren estalduraren %
Margoa	15,47	24	645	258	29	40
Marrazki	10,401	16	650	260	29	40
Korporazioa %60 onartzea aplikazioa						

Ikastaroa	Kostea (€)	Prezio Publikoa (€)	Kostuaren estalduraren %
Hilean behingo ikastaroa	48,40	10	20,66%

- Familia-unitatea persona batek osatzen badu eta bere hileko diru-sarrerak LGSa baino txikiagoak badira, prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita geratuko da.
- Era berean, 2 pertsonako edo gehiagoko familia-unitateetako kideak ere egongo dira, baldin eta haien hileko diru-sarrera bateratuak ez badira LGSa baino 1,3 aldiz handiagoak.

KULTUR TAILERRAK	KOSTUA	Ikasleak (gutxienez)	Unitateko kostua	Prezio publikoa	Hilekoa	% Kostu estaldura
Astean ordubeteko ikastaroak (edo hilean 4 ordu artekoak)	1.443,00 €	8	180,38€	72 €	8 €	40 %
> 1 orduko ikastaroak eta astean gehienez 3 ordukoak (edo hilean gehienez 12 ordukoak)	2.885,00 €	8	360,63€	90 €	10 €	25 %
> 3 orduko ikastaroak eta astean 6 ordu artekoak (edo hilean 24 ordu artekoak)	7.214,00 €	8	901,75€	261 €	29 €	29 %
6 ordutik gorako eta astean 12 ordura arteko ikastaroak (edo hilean 48 ordura artekoak)	12.984,00 €	8	1.623,00€	519 €	58 €	32 %

- Familia-unitatea pertsona batek osatzen duenean eta hileko diru-sarrerak LGSa baino txikiagoak direnean, prezio publikoa ordaintzetik salbuetsita geratuko da.



- Era berean, 2 pertsonako edo gehiagoko familia-unitateetako kideak salbuetsita daude, baldin eta hileko diru-sarrerak ez badira LGSa baino 1,3 aldiz handiagoak.

E) Gazteria eta Kirol Sailak emandako zerbituz eta jarduerak*:

PROGRAMA	KONTZEPTUA	KOSTUA	PREZIOA	% KOSTUAREN ESTALDURA
IZOTZ PISTA	14 URTETIK BEHERAKOEN-TZAKO SARRERA	10 €	4 €	% 40
	HELDUENTZAKO SARRERAS	15 €	6 €	% 40
	IKASTAROAK	5 €	7 €	% 140
	EGUN HERRIKOIA	10 €	3 €	% 33,33
	ESKULARRUAK	1,30 €	2 €	% 154
UDARO*	ASTEBETE	112,20 €	60 €	53,47%
	HAMABOSTALDI BAT	224,41	100 €	% 44,56
	BI HAMABOSTALDI	448,82	160 €	% 35,64
LANDAEDERRA	EGONALDIA EGUNEKO	40 €	40,00 €	% 100
	FIDANTZA		50,00 €	

* Bi pertsona edo gehiagoko familia-unitateetako kideek ez dute prezio publikoa ordaindu beharrik izango, baldin eta bien hileko diru-sarrerak ez badira LGSa baino 1,3 aldiz handiagoak.

F) Durango Kirolak emandako zerbitzu eta jarduerak:

Prezio publikoak egikaritzeko arau bereziak.

Hobari eta salbuespenak Durangon erroldatutakoei soilik aplikatuko zaizkie.

Erabilpena hobetzeko asmoz promozio espezifikoak egin daitezke. Aipatutako promozioak Erakundearen presidentek onartuko ditu, eta Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko zaizkio.

1. Multijarduera

1.A. ARRUNTA: 50 euro/hileko.

Multijarduera honetan izena eman duenak ondoko zerbitzuetara sarbidea du:

- Udal igerilekuetara sarbidea.
- Fitness aretora eta Rokodromora sartzeko eskubidea.
- A, B eta C mailetako jardueretara joateko eskubidea, baldin eta haietan tokia badago.

Hobariak:



- Derrigorrezko hezkuntzako, unibertsitateko eta lanbide heziketako ikasleak, 25 urte baino gutxiago dutenak (aldez aurretik egiaztatuta): % 20. Langabezian dauden pertsonak (egiaztatuta), betiere izena eman aurretik: % 25.
- 65 urtetik gorako nagusiak, goizeko ordutegian (15:00ak arte): %35.
- %33tik gorako elbarritasun-maila dutenak: % 20.

Bestelako hobariak, aurrekoekin bateragarriak:

- Hiruhileko abonuan %10.
- Urteko abonuan (urtealdi naturalarekin bat egitea ezinbestekoa da): %20

Durangon ez erroldatuek %30eko gainordaina izango dute.

1.B Multijarduera Plus: 59 euro/hileko.

Multijarduera Plusean, aurreko guztiaz gain, PILATES eta YOGA zerbitzuak daude barneratuta, aurreko epigrafean aipatutako baldintza berdinekin.

2. Instalazioetarako sarbidea

2.1. Igerilekuak

Igerilekuetan sartzeko ezinbestekoa da abonua izatea, edo, bestela, banakako sarrera (soltea) edo multisarrera bonuak eskuratzea.

Mota	Sarrera soltea	10 sarrera
Banakako sarrera	5 €	42 €
Udako sarrera	4 €	31,50 €
Durangoko udalekuak eta antzeko taldeak	1,50 €	

Igerilekuak erabiltzeko abonoak	Urtekoa	Hiruhilekoa	Hilekoa
Familia abonua	186 €	58 €	28 €
Banakako abonua	127 €	38 €	19 €

Udako igerilekuetako abonua, hiruhilekoa izango da.

10 sarrerako bonuak, jasotako urtean erabili beharko dira.

Hobariak:

Banakako abonua: 18 urtetik beherakoak	%40 (banakako abonuan)
Banakako abonua: ikasleak eta langabeak.	%20 (banakako abonuan).
65 urtetik gorako nagusiak, goizeko ordutegian (15:00ak arte), banakako abonua eskuratzeko.	%35
%33tik gorako elbarritasuna dutenak.	%20



Igeriketako federatuak udalerriko igeriketa-talde ofizialen bateko kide izanda, eta dagokien ordutegian.	%100
--	------

Familia unitateko urteko errentaren arabera hobariak:

BIZIKIDETZA UNITATEKO PERTSONA KOPURUA	< = LAGS	< = 1,5 LAGS	< = 2 LAGS	< = 2,5 LAGS	< = 3 LAGS
1--2	% 40	% 20	% 10	% 0	% 0
3	% 50	% 30	% 20	% 10	% 0
4	% 60	% 40	% 30	% 20	% 10
5 edo >	% 70	% 50	% 40	% 30	% 20

Urtean zehar, gutxienez 9 hilabetez ikastaro batetan egonez gero, familia-unitatearen errentagatik hobari hau ere aplikatu ahal izango da.

Hobaria lortzeko, subjektu pasiboak urtero egin beharko du eskaria, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Eskatzailearen eta haren ondorengoen errenta aitortpena.
- ✓ Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinteko deklarazioak ere balioko du).

Salbuespenak:


- 4 urtetik beherakoek ez dute zertan banakako sarrerarik (sarrera solteak) ordaindu.
- Durangon erroldatuta ez daudenek %30eko gainordaina izango dute .

2.2. Rokodromoa

Instalazioa: eskalatze-murrua	Prezioa
Sarrera soltea (egunekoa)	4 €
Hilabeterako sarbidea	8 €

Hobariak:

Hobari zerrenda	Hobarien ehunekoak
Banakako abonua: 18 urtetik beherakoak	% 40 (banakako abonuan)
Banakako abonua: ikasleak eta langabeak.	% 20 (banakako abonuan). Egiatagiri moduan dagokien txartela aurkeztuko dute; ez dira kontuan hartuko "enplegua hobetzeko txarteldunak".
Mendiko federatuak udalerriko mendi-talde ofizialen bateko kide izanda, eta dagokien ordutegian.	%100



--	--

Hobariak:

- Hiruhileko abonua (hiruhileko naturalak): %10.
- Urteko abonua (urte naturala): %20.

Gainordainak:

- Durangon errolatuta ez daudenek %30eko gainordaina izango dute .

2.3. Fitness aretoa

Instalazioa Fitness aretoa	Prezioa
Eguneko sarrera.	5 €
Hileko sarrera (lau sarrera hilean)	12 €
Hileko sarrera (zortzi sarrera hilean)	21 €
Hileko sarrera (hamabi sarrera hilean)	25 €
Hileko sarrera (hamasei sarrera hilean)	28 €
Hileko sarrera (sarrera librea)	32 €
Bilera gela	10 €


Hobariak:

- Hiruhileko abonua (hiruhileko naturalak): %10.
- Urteko abobuak (urte naturala): %20.
- 65 urtetik gorako nagusiak, goizeko ordutegian (15:00ak arte), banakako abonua (asteazkenean zehar): 35%.
- Durangon errolatuta ez daudenek %30eko gainordaina izango dute . 15:00AK ARTERAINOKO ORDUTEGIKOEK EZIK.

2.4 bestelako instalazioak

INSTALAZIOA	Prezioa orduko
Tenis pistak	7 €
Padel pistak	9,5 €
Futbol-11 zelaiak	47 €
Futbol-7 zelaiak	32 €
Areto-futbol eta saskibaloia kantzak	40 €
Ezkurdi pilotalekua	16 €
San Fausto pilotalekua	10 €

Hobariak:



18 urtetik beherakoek futbol zelaian eta frontoian, %40ko hobaria izango dute, betiere erabiltzaileen gehiengoak aipatutako adina baldin badauka.

2.5 ekitaldi bereziak

Mota	Prezio orduko
Kirol izaerarik ez duten ekitaldiak	106 €
Kirol izaerako ekitaldiak	64 €

Prezio publiko hauei erabileraren ondoriozko kostu osagarriak gaineratu behar zaizkie; garbiketarenak, zaintzarenak, etab.

Udalaren beraren ekitaldiei %100eko hobaria aplikatuko zaie. Hala ere, arestian aipatutako kostu osagarriak beraien gain hartuko dituzte.

3. Monitore edo begiraledun jarduera eta ikastaroak

Jarduera sailak	Prezioa (saio asteko/hileko)
A Saila	8 €
B Saila	10 €
C Saila	12 €
D Saila	15 €
E Saila	20 €
F Saila	21 €
G Saila	4 €

A Saila	B Saila	C Saila	D Saila	E Saila	F Saila	G Saila
Gimnasia	Zunba	Ur jarduerak	Yoga	Pilates	Padel	Gimnasia > 65
Circuit express	Body weight	Abdominalak	Igeriketa 5 urte gora-koak	Igeriketa 3, 4, 5 urte	Patinajea	
		Spin byke				
		GAP				
		Hipopresiboak				
		Hasierako pilatesa				
		Metabolic Kal				
		Strechig				
		Bizkar osasuntsua				
		Areto dantzak				



--	--	--	--	--	--	--

Hobariak:

- 15 urtetik beherakoek %20ko hobaria izango dute padel, patinaje eta zunba jardueretan.
- Yoga jardueran, 65 urtetik gorakoek, goizeko ordutegian, 15:00ak arte: % 35

Gainordainak:

Durangon errolatuta ez daudenek %30eko gainordaina izango dute, ekintza hauetan izan ezik:

Abdominalak, Ur jarduerak (aquagym, aquabike, igeriketa taldea), Areto dantzak, Bizkar osasuntsua, Hipopresiboak, Metabolik kal., Patinajea, Pilates, Spinbike eta Yoga.

4. Bestelako zerbitzuak

Dutxa..... 2 €.

5. Salgai ditugun artikuluak

Giltzdun giltzarra-poa	4 €
Toalla	3 €
Txanoa	2 €
DK txartela	6€
DKko umeentzako motxila	5 €
DK botilatxoa	3 €
Armairuak (Tabira udako igerilekuak salbu)	5 €
Tabira udako igerilekuetako armairuak.	16 €

G) Bartolome Ertzila Musika Eskolak emandako zerbitzu eta jarduerak:

Musika-Eskola: 2024-2025 ikasturteko prezio publikoak

Eman beharreko ikasgaiak	PREZIOA (euro/hilero)
Musika eta Mugimendua (4 - 6 años)	23,61 €
Musika Hizkuntza	23,61 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna aurrekoa	45,15 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna	63,31 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna indartua	71,73 €
Informatika Musikala + musika-tresna	63,31 €
Konboa + musika-tresna	63,31 €
musika-tresna	41,05 €
musika-tresna (saio partekatua)	34,89 €



Musika-taldeak: Abesbatza, banda, orkestra, konboa, taldeko saioa...	7,18 €
Informatika Musikala / Ahots teknika / Perkusio Latindarra	23,61 €
Entzunaldi musikalak	18,47 €

Kontserbatorioa: 2024-2025 ikasturteko prezio publikoak

KONTSERBATORIOA_ Musika-ikasketa profesionalak	PREZIOA (euro/hilero)
1. eta 2. Kurtsoa (LOE)	136,78 €
3., 4.,5. eta 6. Kurtsoa (LOE)	160,50 €

Prezio publikoak aplikatzeko arauak

1. Dagokion prezio publikoaren kobratzeko era: Hamar (10) hileko kuotak.

2. Hobariak:

a) Familia unitateko diru-sarreraren arabera (taulan jasotakoak):

Bizikidetzaren unitateko kideak Miembros unidad familiar	< = LGS/SMI	< = 1,5 LGS/SMI	< = 2 LGS/SMI	< = 2,5 LGS/SMI	< = 3 LGS/SMI
1 – 2	%40	%20	%10	%0	%0
3	%50	%30	%20	%10	%0
4	%60	%40	%30	%20	%10
5 edo/o >	%70	%50	%40	%30	%20

Hobariak lortu ahal izateko subjektu pasiboak urtero egin behar du eskaria, ondoko agiri hauek aurkeztuz:

- o Eskatzailearen eta haren ondorengoen errenta aitortpena.
- o Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinpeko deklarazioak ere balioko du).

b) Familia bereko 2 kide edo gehiago musika eskolako ikasle izanez gero, familia-unitate horiek %50eko hobaria izango dute hileko kuotan.

c) Musika-tresna batean baino gehiagotan matrikulatzen diren ikasleei, matrikulazioko eta ikasleko ordainketa koefizientea aplikatuko zaie:

- Lehenengo musika-tresna: ehuneko ehun (%100).
- Bigarren musika-tresna: ehuneko hirurogeita hamabost (%75).
- Hirugarren musika-tresna: ehuneko berrogeita hamar (%50).

3. Bajak jakinarazteko epea.

Bajak Musika Eskola eta kontserbatorioko administrazio-langileei jakinarazi behar zaizkie ikasturtea amaitzen denetik dagokion urteko abuztuaren 31ra. Ezarritako epe hori gaindituz gero, iraileko hileko kuota kobratuko da. Urritik ikasturtea amaitu arte eskatzen diren bajen kasuan, dagokion hilabeteko 10. eguna baino lehen aurkeztu behar dira, eta epe honetatik kanpo eskatuko balira, eskaria egin den hilabeteko kuota ordainduko da.»



H) Astarloa Kulturgintzak emandako zerbitzu eta jarduerak:

H.1) San Agustín Kultur Gunea

Programazio egonkorra osotzen duten Eszena Arteetako emanaldien gain ezartzen diren tarifak:

- Helduei zuzendutako ikuskizun profesionalak, antzerkia, musika eta dantza arloetakoak: Emanaldiaren kaxeta eta ikuskizunaren kalitatea kontutan hartuz, SAKGk, hauetariko prezio bat ezarriko du: 6€, 8€, 10€, 14€, edota 15-20€.


Astarloa Kulturgintzako Juntak erabaki du kaxetaren arabera sarrera prezioak ezartzea, beheko irizpideei jarraituz:

- 0 eta 1.500 € arteko kaxeta - 6 €ko prezio arrunta.
 - 1.500 eta 3.000 € arteko kaxeta - 8 €ko prezio arrunta.
 - 3.000 eta 5.000 € arteko kaxeta - 10 €ko prezio arrunta.
 - 5.000 € eta 7.000 € arteko kaxeta - 14 €ko prezio arrunta.
 - 7.000€ baino gehiagokoetan -15€ eta 20 €ko prezio arrunta, programazio arduradunak iritzitako kultura interesaren arabera.
- Haurrei zuzendutako emanaldiak (antzerkia, musika eta dantza) 4 €.
 - Koro-aldeko sarrera guztiek %20ko deskontua izango dute, Patioa esaten zaionarekin alderatuz okerrago ikusten baita.

Bazkide txartelak:

- Helduen** urteko bazkideztza - 25 €/urteko.
Eratorritako eskubideak:
 - San Agustín kultur guneak antolatzen dituen emanaldi guztietan %25eko beherapena. Baita SAKGk, aretotik kanpo antolatzen dituenetan ere.
 - Urteko bi emanaldi doako. San Agustín KG-k erabakiko ditu, eta sasoz jakinaraziko dizkie bazkideei.
- Umeen** urteko bazkideztza (13 arte bitartekoentzat) - 5 €/urteko.
Eratorritako eskubideak:
 - San Agustín kultur guneak antolatzen dituen emanaldi guztietan %25eko beherapena. Baita SAKGk aretotik kanpo antolatzen dituenetan ere.
 - Urteko bi emanaldi doako. San Agustín kultur guneak erabakiko ditu, eta sasoz jakinaraziko dizkie bazkideei.
- Familia Abonua:** Etxebizitza berean bizi diren 13 arte baino gehiagoko familia bereko 3 lagun edo gehiago bazkideztu ezker, bakoitzaren kuota 20 €tara merkatuko da.
- Hobariak:** Prezio publikoan hobariak egongo dira bizikideztza-unitateek dituzten diru-sarreraren arabera. Hauxe da errentaren arabera hobarien taula:

BIZIKIDEZTA UNI-TATEKO KIDEAK	< = LGS	< = 1,5 LGS	< = 2 LGS	< = 2,5 LGS	< = 3 LGS
1-2	% 40	% 20	% 10	% 0	% 0
3	% 50	% 30	% 20	% 10	% 0
4	% 60	% 40	% 30	% 20	% 10
5 edo >	% 70	% 50	% 40	% 30	% 20



Hobaria lortzeko, subjektu pasiboak urtero egin beharko du eskaria, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Eskatzailearen eta haren ondorengoen errenta aitorpena.
- ✓ Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinteko deklarazioak ere balioko du).

Sarrerren hobariak:

- Eusko Jaurlaritzaren Gazte Txartela - Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak proposatutakoari jarraituz, %25eko beherapena ezarriko zaio txartel honen jabe diren titularrei.
- Durangoko Euskaltegiak - %50eko beherapena eskainiko zaie euskarazko emanaldietarako, beti ere, irakasle batek lagunduta 15 lagun edo gehiago hurbiltzen badira. Emanaldiak SAKGk aukeratuko ditu.
- Ikuskizunen bat herritar talde konkretu, batentzat interesgarria denerako, Astarloako Juntak beretzat gordeko du %50a bitarteko hobari bereziak eskaintzeko eskumena.
- Astarloako Juntak "antzerki denboraldiko bonuak" kaleratu ahal izango ditu, oinarritzeko prezioarekiko %20ko hobaria ezarri.
- Langabetuentzako hobariak: langabetuek %25eko hobaria izango dute, bai bazkietza txartelean eta baita sarreretan ere. Hobarien onuradunak izateko langabetua dela egiaztatu beharko dute.

San Agustin Kultur Guneak alokairua:

- Alokairutzat hartuko da aretoa erabiltzeko eskaera diru-irabazidun erakunde pribatu batek egiten duenean, Durangokoa zein kanpokoa izanda ere.
- 2 aukera eskaintzen dira:

1) ikuslegoa izango duten emanaldi/saioak:

- Emanaldiaren 1. orduagatik: 405 €.
- Gainontzeko ordu bakoitzagatik: 202 €.

Ekitaldiaren denbora hartuko da kontutan, baina ez dira kontatuko entsegutarako edota prestaketa zein batze lanetan emandako denbora.

Fakturatzeko gutxieneko denbora 30 minutu izango da.

2) Ate itxiekin eta ikusle barik hartutako alokairuetarako (grabaketa lanak...etab).


- Erabilitako ordu bakoitzagatik 51 €.

San Agustin Kultur Guneak eskaintako Topaklown-eko kurtsoak

Topaklown antzerki eta genero honetako zaleei zuzendutako klown antzerki teknikan urteko prestakuntza eta erakusketa topaketa da. Aste Santuan egiten diren ikastaro trinkoak dira, artistek trebakuntzarako garaia aipostzat hartzen dutena, eta klowneko umore ikuskizunak eskaintzen dira hiritargoak goza ditzan eta ikasleek formakuntza eta aisialdirako unea izan ditzaten. 2 ikastaro mota daude, 16 orduko ikastaroak eta 9 orduko ikastaroak.

Topaketara joateko aukera asko daude eta bakoitzak bere tarifa du:

- 16 orduko ikastaroan parte hartzea = 140 euro
- 9 orduko ikastaroan parte hartzea = 100 euro
- Bi ikastaroetarako laguntza, 16 ordukoa eta 9 ordukoa bestea = 225 euro
- Gelako 6 ikuskizunak = 36 euro ikusteko bonoa
- Bi ikastaroetara joatea eta janaria gehi ikuskizun bonoa eta kiroldegian lo egiteko aukera = 270



- 16 orduko ikastaro batera bertaratzea gehi otorduak gehi ikuskizun bonoa eta kiroldegian lo egiteko aukera = 200 euro
- Bertaratzea 9 orduko ikastaro batera gehi bazkariak gehi ikuskizun bonoa eta kiroldegian lo egiteko aukera = 170 euro.

H.2) Kurutzesantu Museoa

- Durangon irabazi asmorik gabeko entitate publikoek edo pribatuek kultur espazioa erabiltzeko alokairua dela ulertzen da.
- Turismo bulegoa zein museoetatik kanpo egiten diren alokairuak orduko 60 € balioko dute.
- Jarduera ordutegiarekin bat egiten badu, ez du inolako kosturik izango, baina aldezturik baloratu beharko da espaziora egokitzea eta ez duela oztopatzen toki horretan egiten diren Turismo Bulego edo Museo beraren eguneroko jarduerak.

H.3) Arte eta Historia museoa

Arte eta Historia museoak eskainitako kurtsoen tarifak: Humanitates

- Los cursos Humanitates los organiza el Museo de Arte e Historia en colaboración con la Universidad del País Vasco. Se ofrecen dos cursos por año, con una duración de ocho semanas (una sesión de hora y media por semana). Las materias son impartidas por profesores de UPV.
- Los precios son de 25€ para público en general y de 15€ para parados y estudiantes.

Liburuen eta katalogoen salmente tarifak:

- Arte eta Historia Museoak bere erakusketen inguruan argitaratutako katalogo bereziek 10 € -ko salmenta prezioa dute.
- Argitaratzen diren liburuak, museoaren gaitik kanpo (erakusketak), Astarloa Kulturgintzako Gobernu Batzordeak erabakitako prezioa izango dute, paperaren tamainaren, kalitatearen eta abarren arabera.
- Beste argitaletxe batzuekin batera editatu diren liburuek haiekin adostutako prezioa izango dute.

«H.4.) Plateruena Kulturgunea

Oro har, gune honetan egin beharreko jarduerak eta ekitaldiek bat etorri beharko dute «Astarloa Kulturgintza» Administrazio-Erakunde Autonomoek (aurrerantzean, «Astarloa Kulturgintza» AEA) bere estatutuetan ezarritako helburuekin, erakunde autonomoak edo Durangoko Udaleko arlo eta zerbitzuek estrategikotzat definitu eta onartuta dituzten zeharkako eta garapen jasangarriko helburuekin, eta ondasun higiezinaren gaikuntza-tituluan ezarritako jarduerekin.

Sarrerren salmenta duten Administrazio-Erakunde Autonomoek (aurrerantzean, AEA) eta Udalak programatutako jarduera eta ekitaldien prezio publikoak.

AEAk eta Udalak programatutako jarduera eta ekitaldietarako sarrerren salmentari dagozkion prezio publikoak programatutako jarduera edo ekitaldia egiteko kontratatutako pertsonen cacheari dagozkion tarteen arabera zehaztuta daude, eta honako hauek dira:

Sarrerren salmenta cache tarteen arabeko prezioak	€
0 € 1500 €	6,00 €
1501 € 3000 €	8,00 €
3001 € 5000 €	10,00 €
5001 € 7000 €	14,00 €
7001 € 9000 €	15,00 €
<9001 €	20,00 €

Nolanahi ere, «Astarloa Kulturgintza» AEAk erabaki ahal izango du herritarrak programatutako jarduerara edo ekitaldira doan sartzea, interes publikoa, kulturala edo soziala egiaztatzen den erakundearen presidentek ebazpena eman ondoren, hurrengo bilkuran Kontseilu Errektoreari horren berri emanez.



Jarduera eta ekitaldi desberdinak egiteko espazioaren alokairuari dagozkion prezio publikoak

Ondasun higiezinaren ezaugarri orokorrak eta indarrean dagoen gaikuntza-tituluan aurreikusitako jarduerak eta kontuan hartuta, honako jarduera eta ekitaldi hauek aurreikusten dira, dagozkien prezio publikoekin, espazioaren alokairuagatik aplikatu beharrekoak:

Mota OROKORREKO ALOKAIRUAK	€ orduko	€ Jard_1/2 (4 ordu)	€ Jard_OSOA (8 ordu)
Kontzertu-aretoa	120,00 €	384,00 €	576,00 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	90,00 €	288,00 €	432,00 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	82,00 €	262,40 €	393,60 €

Jarduera edo ekitaldia lau (4) edo zortzi (8) ordutik gorakoa bada, orokorrean, alokatzeko jardunaldi erdia eta jardunaldi osoa, hurrenez hurren, gehiegizko ordu bakoitzeko, aipatutako jardunaldiei dagokien prezioaz gain, jarduerarako edo ekitaldirako ezarritako orduko prezioa ordaindu beharko da.

Jardueraren edo ekitaldiaren iraupenak ezin izango du inoiz ondasun higiezinaren gaikuntza-tituluan zehaztutako sailkapen-taldean ezarritako gehieneko ordutegia gainditu.

Prezio publikoaren gaineko hobariak

Irabazi-asmoa duten edo ez duten erakundeak, profesionalak edo amateurak eta pertsona fisikoak diren kontuan hartuta, Balizko erabiltzaileei buruzko sailkapen hau ezartzen da:

Erakunde motak	
A MOTA	Irabazi asmorik gabeko erakundea
B MOTA	Profesionalak ez diren taldeak edo talde amateurak
MOTA OROKORRA	Irabazi asmoko erakundea edo pertsona fisikoa, jardueraren izaera edozein dela ere

Instalazioaren alokairua beren ekipamenduekin eskatzen duten pertsona fisikoak, garatu beharreko jardueraren izaera edozein dela ere, Tasa Orokorraren barruan sailkatu izan dira, irabazi-asmoa duten erakundeak bezala.

A eta B motako erakunde eta taldeei honako hobari-ehuneko hau aplikatuko zaie prezio orokorrari dago-kionez:

Hobarien aplikaziorako irizpideak, erakunde-motaren arabera	Mota OROKORRAREN arabeko hobarien %a
A MOTA Irabazi asmorik gabeko erakundea	75
B MOTA Profesionalak ez diren taldeak edo talde amateurak	50

Aplikatu beharreko hobari-portzentaje horien arabera, erakunde edo talde motaren arabeko prezio publikoak honako hauek dira:

Prezio publikoari dagozkion hobariak, prezio publikoen mota orokorraren arabera			
A Motako ALOKAIRUAK	€ orduko	€ Jard_1/2 (4 ordu)	€ Jard_OSOA (8 ordu)
Kontzertu-aretoa	30,00 €	96,00 €	144,00 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	22,50 €	72,00 €	108,00 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	20,50 €	65,60 €	98,40 €



B Motako ALOKAIRUAK	€ orduko	€ Jard 1/2 (4 ordu)	€ Jard OSOA (8 ordu)
Kontzertu-aretoa	60,00 €	192,00 €	288,00 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	45,00 €	144,00 €	216,00 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	41,00 €	131,20 €	196,80 €
Mota OROKORREKO ALOKAI- RUAK	€ orduko	€ Jard 1/2 (4 ordu)	€ Jard OSOA (8 ordu)
Kontzertu-aretoa	120,00 €	384,00 €	576,00 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	90,00 €	288,00 €	432,00 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	82,00 €	262,40 €	393,60 €

Aplikatu beharreko prezio publikoaren gaineko karga

Garatu beharreko jarduerak edo ekitaldiak antolatzaileari diru-sarrerak sortzen badizkio eta berezitzat jotako egunetan eta ordutegi-tarteetan egiten bada, aplikatu beharreko prezio publikoarekiko ezarritako kargaren ehunekoa ondoko taula honetan zehazten da:

Hasierako prezioarekiko portzentaje-igoera aplikatzeko irizpideak	% GEHI.
Osteguneko eta ostiraleko jardunaldiak (arratsaldeak), larunbata, igandea eta jai-egunak	20
Diru-sarrerak dituzten jarduerak	25

Honako egun eta ordu-tarte hauek hartuko dira jardunaldi berezitzat: ostegun eta ostiral arratsaldeko jardunaldiak, larunbat, igande eta jaiegunak. Jardunaldi berezi horiei ehuneko hogeiko (20) karga aplikatuko zaie, erakunde motaren arabera zehaztutako prezio orokorrari dagokionez. Diru-sarrerak sortzen dituzten jardueren kasuan, ehuneko hogeita bost (25) gehituko zaio erakunde motaren arabera ezarritako prezio orokorrari.

Jardunaldi berezietan egiten diren jardueretan eta ekitaldietan honako prezio publiko hauek aplikatuko dira, dagokion ehuneko hogeiko (20) karga kontutan hartuz:

Prezio publikoari dagokion gehikuntza, jarduera edo ekitaldia JARDUNALDI BEREZETAN egitea- gatik			
A Motako ALOKAIRUAK	€ orduko Egund BEREZIAK	€ Jard 1/2 (4 ordu) Egund BERE- ZIAK	€ Jard OSOA (8 ordu) Egund BERE- ZIAK
Kontzertu-aretoa	36,00 €	115,20 €	172,80 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	27,00 €	86,40 €	129,60 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	24,60 €	78,72 €	118,08 €
B Motako ALOKAIRUAK	€ orduko Egund BEREZIAK	€ Jard 1/2 (4 ordu) Egund BERE- ZIAK	€ Jard OSOA (8 ordu) Egund BERE- ZIAK
Kontzertu-aretoa	72,00 €	230,40 €	345,60 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	54,00 €	172,80 €	259,20 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	49,20 €	157,44 €	236,16 €
Mota OROKORREKO ALOKAIRUAK	€ orduko Egund BEREZIAK	€ Jard 1/2 (4 ordu) Egund BERE- ZIAK	€ Jard OSOA (8 ordu) Egund BERE- ZIAK
Kontzertu-aretoa	144,00 €	460,80 €	691,20 €
Arte eszenikoak eta kulturalak	108,00 €	345,60 €	518,40 €



Ikuslerik gabeko jarduerak	98,40 €	314,88 €	472,32 €
----------------------------	---------	----------	----------

Sarrerak sortzen dituzten jarduerak eta ekitaldiak egiteagatik ehuneko hogeita bost (25) karga ezarriko zaien ordaindu beharreko prezio publikoak honako taula honetan zehaztutakoak dira:

Prezio publikoari dagokion gehikuntza, diru-sarrerak dituzten jarduerak edo ekitaldietan						
A Motako ALOKAIRUAK	€ orduko DIRU-SARREREKIN	€ orduko Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN
Kontzertu-aretoa	37,50 €	45,00 €	120,00 €	144,00 €	180,00 €	207,36 €
Arte eszenikoak eta kulturak	28,13 €	33,75 €	90,00 €	108,00 €	135,00 €	155,52 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	-	-	-	-	-	-
B Motako ALOKAIRUAK	€ orduko DIRU-SARREREKIN	€ orduko Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN
Kontzertu-aretoa	75,00 €	90,00 €	240,00 €	288,00 €	360,00 €	414,72 €
Arte eszenikoak eta kulturak	56,25 €	67,50 €	180,00 €	216,00 €	270,00 €	311,04 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	-	-	-	-	-	-
Mota OROKORREKO ALOKAIRUAK	€ orduko DIRU-SARREREKIN	€ orduko Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_1/2 (4 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) DIRU-SARREREKIN	€ Jard_OSOA (8 ordu) Egun BEREZIAK DIRU-SARREREKIN
Kontzertu-aretoa	150,00 €	180,00 €	480,00 €	552,96 €	720,00 €	829,44 €
Arte eszenikoak eta kulturak	112,50 €	135,00 €	360,00 €	432,00 €	540,00 €	622,08 €
Ikuslerik gabeko jarduerak	-	-	-	-	-	-


Instalazioa doan lagatzea

Erakunde antolatzailea Durangoko Udalaren mendeko udal-zerbitzu edo -erakunde bat denean, espazioa doan lagako da, aldez aurretik «Astarloa Kulturgintza» AEAK ezarritako moduan eta denboran eskatu ondoren.

Halaber, espazioa doan utzi ahal izango da irabazi-asmorik gabeko erakunde bat denean, Durangoko Udalarekin lankidetzat-hitzarmen bat sinatuta eta indarrean duena edo Durangoko Udalean bere erakunde autonomoetan ezarritako zeharkako politika, plan eta estrategiekin, Garapen Iraunkorreko Helburuekin lotutako interes publiko, kultural edo soziala egiaztatzen duena, eta, horretaz aparte, lehentasunezkoa dena Tokiko Gobernu Batzarrarentzat, Udalarentzat edo erakunde autonomoarentzat.

Kasu honetan, zerbitzuaren izaera publikoa dela eta, A eta B motako erakunde edo taldeek aurkeztutako alokairu-eskaerak lehentasunezkoak izango dira erabilera partikular edo pribatukoaren aldean, eta horien artean, egoitza sozial nagusia udalerrian dutela egiaztatzen dutenak, betiere bertan garatuko den jarduerak edo ekitaldiak Plateruena Kulturgunerako estatutuaren ezarritako jarduerak-eremuarekin bat badatoz eta kulturarekin eta kulturaren arloan euskararen erabilera normalizatu, sustatu eta bultzatzearekin lotuta badaude.

Nolanahi ere, doako lagapena aplikatzeko, aldez aurretik erakunde autonomoko presidenteari ebazpena beharko da, Kontseilu Errektoreari hurrengo bilkuran ebazpen horren berri emanez.



Instalazioaren alokairuarekin lotutako alderdi orokorrak

- Zerbitzuaren izaera publikoa dela eta, orokorrean, A eta B motako erakunde edo taldeek aurkeztutako alokairu-eskaerak lehentasunezkoak izango dira erabilera partikular edo pribatuko enpreen, eta horien artean, egoitza sozial nagusia udalerrian dutela egiaztatzen dutenak, betiere bertan garatuko den jardueraren edo ekitaldiaren Plateruena Kulturagunerako estatutuaren ezarritako jardueraren eremuekin bat badatoz eta kulturarekin eta kulturaren arloan euskararen erabilera normalizatzearekin, sustatzearekin eta bultzatzearekin lotuta badaude.

Salbuespen gisa, eta proposamenaren interes publikoa, kulturala edo soziala egiaztatu ondoren, «Astarloa Kulturagintza» AEAk erakunde pribatu batek edo pertsona fisiko batek antolatutako jardueraren edo ekitaldiaren bat garatzeko espazioaren erabilerrari lehentasuna eman ahal izango dio. Horretarako, aldez aurretik erakunde autonomoaren presidentek eta jardueraren programazioaz arduratzen diren teknikariek osatutako duen batzorde tekniko batek ebazpen arrazoitua eman beharko du, ondoren, hurrengo bilkuran Kontseilu Errektoreari ebazpen honen berri emanez.

- Ondasun higiezinako soinu- eta argiztapen-ekipoak erabiltzeko teknikariak eta dagozkion beste zerbitzu osagarri batzuk ez daude alokairuaren prezioan sartuta, ezta sarbidea kontrolatzeko eta «Astarloa Kulturagintza» AEAk jarduerarako edo ekitaldirako ezarritako gehieneko edukiera betetzen dela bermatu ahal izateko langileak ere. «Astarloa Kulturagintza» AEAtik kanpoko langileek edozein ekipo tekniko eta zerbitzu osagarri erabiltzeko, erakundeko teknikarien oniritzia izan beharko dituzte eta hauek emandako jarraibideak bete. Era berean, ordaindutako prezioan ez da sartzen jardueraren edo ekitaldiaren garapenera lotutako beste edozein gastu espezifiko.
- Garatu beharreko jarduerari eta ekitaldiei jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueraren arloan indarrean dauden araudia aplikatu behar bazaie, antolatzaileek uneoro aipatutako xedapenetan ezarritakoa benetan betetzen dela bermatu beharko dute.
- Alokairu-epea amaitu ondoren, antolatzaileek kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian utzi beharko dituzte zerbitzua emateari lotutako ondasunak, uneoro, jardueraren edo ekitaldiaren garapeneraren ondorioz, erakunde autonomoari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik sortzen diren kalte-galeren erantzule izanez.
- Alokairu-eskabideak jardueraren edo ekitaldiaren egin baino gutxienez hamabost (15) egun lehenago aurkeztu behar izango dira, «Astarloa Kulturagintza» AEAk ezarritako moduan eta zehaztutako bitartekoen bidez. Erreserba berresteko orduan, aplikatu beharreko prezio publikoaren zenbateko osoaren zati bati ordaintzea eskatu ahal izango da.
- Jardueraren edo ekitaldiaren egin baino astebete lehenago erreserba baliogabetzen bada, antolatzaileek dagokion prezio publikoaren ehuneko hogeita bost (25) ordaindu beharko dute.

Prezio publikoak erakunde autonomoak zehazten duen moduan ordaindu behar izango dira, jardueraren edo ekitaldiaren egin baino gutxienez hiru (3) egun lehenago. Bestela, egindako erreserba baliorik gabe geratuko da. > >

I) Durangoko Udal Euskaltegiak emandako zerbitzu eta jarduerak:

Klase presentzial ordu bakoitzeko prezioa: **1,20 €**

Autoikasketako ordu bakoitzeko prezioa: **1,50 €**



Bonifikazioak

1. Durangon errolatutako herritarrek bizikidetza-unitateko diru-sarreraren arabera hobari edo bonifikazioak izan ditzakete prezio publiko hauetan. Hauxe da errentaren arabera hobarien taula:

BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDEAK	< = LGS	< = 1,5 LGS	< = 2 LGS	< = 2,5 LGS	< = 3 LGS
1--2	% 80	% 60	% 20	% 0	% 0
3	% 90	% 60	% 30	% 10	% 0
4	% 90	% 60	% 60	% 40	% 20
5 edo >	% 90	% 90	% 60	% 60	% 30

Hobaria lortzeko, subjektu pasiboak urtero egin beharko du eskaria, eta dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Eskatzailearen eta haren ondorengoen errenta aitortpena.
- ✓ Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinteko deklarazioak ere balioko du).

2. %90eko hobaria aplikatuko zaie prezio publikoan 63 urtetik gorako nagusiei ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Urteko diru-sarrerak 30.000 euro gordin baino gutxiago badituzte.
- Higiezinaren kapitala 30.000 euro baino gutxiago badute.
- Durangon errolatuta badaude.

J. Taduko aparkalekuaren prezio publikoa

Ordutegia	Tarifak (€)
09:00-13:00 Goizeko 4 orduak	0,5
16:00-20:00 Arratsaldeko 4 orduak	0,5
Orduko prezioa	0,125

Aplikatu beharreko araudia:

- %100eko Hobaria:

Arratsaldeko ordutegia	3 ordu	13:00-16:00
Gaueko ordutegia	12 ordu	20:00-08:00
Jaiegunak ez diren larunbatak	11 ordu	13:00-00:00
Igandeak eta jaiegunak	24 ordu	

- Gehienezko egonaldia: 24 ordu.
- 10.00 euroko zehapena ibilgailu bakoitzaren egonaldiagatik 24 ordutik aurrera.

K. Bizipark prezio publikoa



Bonua	Prezio publikoa (€)
Hilabete bat	4
3 hilabete	10
6 hilabete	20
Urtebete	40